

## 16 Ulertze-jarduera: Esplorazioen eta aurkikuntzen kausak

1. Kausak identifikatu eta azpimarratuko ditugu.
2. Azpimarratutako kausak kategoria edo arloka antolatuko ditugu.



### ESPLORAZIOEN ETA AURKIKUNTZEN KAUSAK

Europak interes handia izan du beti itsasoan, arrazoi ekonomikoengatik batik bat. Erdi Aroaren amaiera aldera (XV. mendean) Europako aberatsak ekialdeko luxuetara ohitu ziren, eta produktu horien eskaria handia zen; horren ondorioz, besteak beste, ekialdetik ekartzen zituzten **produktuen eta lehengaien eskaria handitu zen: espezieena, zetarena eta metal preziatuena** batez ere. **1453an, Konstantinopla otomandarren esku erori** zenean, Mediterraneoan zehar Ekialdeko merkataritza-bideak etenda geratu ziren. Hori zela eta, espedizioak antolatu ziren Ekialdera joateko beste merkataritza-bide batzuk bilatzeko.

**Aurrerakuntza teknologikoak** ugaritu egin ziren garai horretan: ozeanoetan nabigatzeko **itsasontzi** egokiagoak eraki ziren, kartografi an **portulanoak** sortu ziren, nabigazio-teknikak hobetu egin ziren eta **orientatzeko** tresna berriak asmatu zituzten.

Munduari buruzko **ikuspegia** ere aldatzen ari zen, eta Lurra esfera bat zela pentsatzen hasi ziren, besteak beste, Kolon bera. Horri esker ekialdera iristeko mendebaldeko bidea topatzeko lanetan saiatzen hasi ziren. Faktore horiek guztiek bultzatu zituzten esplorazioak.

Badira kontuan hartzeko beste faktore batzuk ere, besteak beste: mundu berriak aurkitzeko eta **esploratzeko interesa**, aurreko mendeetan, besteak beste, Marco Polok edo Zheng Hek aurkitutako bidea edo Portugalgo Henrike IV.a Nabigatzaileak bultzatutako eskola. Horri esker Bartolomeu Dias Esperantza Onaren lurmuturrera iritsi zen 1488an eta Vasco da Gama Caligutera (Indiara). Garai hartan, esploratzaileek jakin-nahiaz gainera ausardia handia behar zuten lurralde ezezagunen bila joateko.

Gaztelaren eta Portugalen **kokapen estrategikoa** dela eta, horiek izan ziren lehen esplorazioen bultzatzaileak.

Horrez gainera, nabarmen zabaldu zen azkar aberastu nahian zebiltzan errege nahiz nabigatzaileen **abentura** eta

nabarmenkeria-grina eta elizak lurralde berriak **kristautu** eta fede katolikoa hedatu nahia. Zenbait erregerentzat **agintea** eta **aberastasunak** areagotzeko aukera ziren espedizio horiek. Gaztelar



erregeak espedizio garestiak ordaintzeko prest zeuden, abantaila handiak espero baitzituzten.

Horren guztiaren ondorioz, XV. mendearen amaieratik eta berrogeita hamar bat urtean, mundua izugarri zabaltzen zen europarrentzat. Asiarako bide berriak topatu nahian, Afrikako kostak inguratu zuten, eta beste batzuek Atlantikoa zeharkatu nahi zuten, Asiara iristeko.

### Espezieak

Ezinbestekoak ziren garai hartan elikagaiak kontserbatzeko, baina gehienak urrutitik ekarri behar zirenez, oso garestiak ziren, luxuzko produktuak.



### Orientatzeko tresnak

**Astrolabioa.** Astroen bidez orientatzeko aukera ematen duen tresna.

**Iparorratza.** Orientatzeko balio duen tresna, Lurraren ipar magnetikoa seinalatzen duena. Oso funtzionamendu sinplea du: imandutako orratz baten bidez, Lurraren ipar magnetikoa erakusten du.

**Sestantea.** Objektu astronomikoak zeruertzean zer garaieran dauden neurtzeko erabiltzen den tresna da. Eguzkia eguerdian non dagoen behatzen da latitudea ezagutzeko.



### Mapak

**Portulanoak.** Mapa berri horietan, besteak beste, portuak eta itsasoan zeuden oztopoak (uharteak...) eta bi porturen arteko distantzia laburrena erakusten zuten marra zuzenak agertzen ziren.

### Ontziak

**Karabela.** Zama handiko belaontzi azkarra. Ontzi aproposa zen ozeanoetan ibilbide luzeak egiteko.

